

OSOQUNEKO ERAKASKERA.  
1997-98ko IKASURTEA.

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.  
1. Zertako ez zen jostetarik suarekin?  
2. Nor zen su hortan pekatu zena?  
3. Sua hil eta zer egeri zen oihanean?

① UDABERRIA 6 Piarres

Eta orai, suzko itsasoa han zuten, hogoi urhatsetan, pareta gorri gorri bat bezala heldu, zinez izigarria. Bero bat eraikia zen ezin jasanezkoa, bafadaka<sup>28</sup> heldu zen beroa. Gizonetarik bat gibeletik su-lamek inguraturik, doi doiak egin zuen ez baitzen hantxet gelditu, begien hesteko artean. Beharrik aski tenorez oihu egin zioten lagunek eta esku eman ere zalukara. Eta jaun erretorak orduan ikusi zuen, jostetarik etzela suarekin, eta zuhur eta erdi izan zirela haren iendeak, gibelerat maiteki igorri hala zutelarik. Doi doiak ere egin zuten bertzalde, ez baitzen Leon gaizoa othoitz zerbeiten beharretan hantxet aurkitu, hain hurbil danik suak inguratu zuclarik...

Bizkitartean, haizkoraz arthiki arbolan aintzinean, hautsi, kraskatu bezala zen su izigarria. Bere buruaren jaten ari zen orai tokiaren gainean, ur-errekak han geldiarazia, ostaila, sardi eta pala ukaldika gizonen zapatua, lehertua. Han, bere gibelean, azken arbolak —handienak— karraskan ari ziren ondarreraino suntsitzen. Ortzi-azantza<sup>29</sup> ematua zen. Hazkurririk<sup>30</sup> gehiago aintzinean ez kausitzen, eta azken hexurren murxatzen<sup>31</sup> ari zen orai su ikaragarria, ñastaka, intzireka; milaka phindarrak igortzen zituen halere, noizetik eta noizera, bere parra osoki iragana ez balu bezala.

Phindar heien hiltzen, oren batez oraino egon ziren gizonak; eta gero, izerditan, joan ziren zoin beren etxetara, pala eta sardi berotuak bizkarrean. Heien gibelean, eta bizpahiru oren lehenago oihan heze ederra zen tokian, ez zen gehiago hauts zuri eta beltz alimale bat baizik ageri, eskuetan zinez erre nahi zuen hauts itsusi bat. *Tiut* eta *tiut*, intzireka, alderdi guzietarat hegaldaka zoazila, ikusirik ez zuten oihaneko xori maiteak, beren ohandze tokiak galdurik, zoki ohilduak. Jandarmak, oihan-zainak han zauden, ur-errekari hurbil xut xuta, zer nahi gertha ere geldituak. Jaun erretora jautsi zen herrirat, bere bikario maltzurarekin eta ongi nekatuak ziren guarda zonbeitekin. Bere gustuz ikasia zuen gaur goiti, etxe gutixko zela Erreka-Luzen.

③ ADITZ IKASKUNTZA.

31. Oihu egin zioten 32. Ez balu bezala.  
33. Hegaldaka zoazila 34. Han zauden.

31. UKAN - Conj. à dble Glt. Indic. Imparfait  
Objet singulier - Hari = à lui - Glt. indir. singulier

Nik nion	= je le lui avais	
Zuk zinion	= vous le lui aviez	Eskaintzen zinioten
Harek zion	= il le lui avait	
Guk ginion	= nous le lui avions	Vous le lui offriez
Zuek zinioten	= vous le lui aviez	
Heiek zioten	= ils le lui avaient	

Obj. sing. - Guri = à nous - Glt. indir. pluriel

Zuk zinakun	= vous nous l'aviez	Erran zaukuen
Harek zaukun	= il nous l'avait	
Zuek zinakuten	= vous nous l'avait	Il nous le dit
Heiek zaukuten	= ils nous l'avaient	

O. S. Zueri = à vous - C. I. P.

Nik nauzuen	= je vous l'avais	Emana ginauzuen
Harek zauzuen	= il vous l'avait	
Guk ginauzuen	= nous vous l'avions	Nous vous l'avions, donné
Heiek zauzuten	= ils vous l'avaient	

32 bis SUPPOSITIF - Eventuel 2<sup>ème</sup> forme - Event. en général

<u>Objet singulier</u>	<u>Objet pluriel</u>
Nik Ukan banerza = (si je l'avais)	Ukan banitza = (si je les avais)
Hik " banerza =	" banitza =
Zuk " banerza =	" banitza =
Harek " banerza =	" banitza =
Guk " banerza =	" banitza =
" " banerzate =	" banitzate =
Heik " banerzate = etc.	" banitzate = etc.

32. SUPPOSITIF - Eventuel 1<sup>ère</sup> forme - Event. à présent

<u>Objet singulier</u>	<u>Objet pluriel</u>
Nik banu = si je l'avais	N. banitu = si je les avais
Hik banu =	H. banitu =
Zuk banu =	Z. banitu =
Harek banu = etc	H. banitu =
Guk banu =	G. banitu =
Zuek banitu =	Z. banituzte =
Heiek banitu = si ils l'avaient	H. banituzte = etc